

---

# ZATIAK

(XABIER)

## **Ibai zabalean.**

Ibai zabalean dabil igeri  
lepo zaillu txuri bat  
Txuriz jantzirik bere egaletan  
berdiñik gabeko lepo bat.

Illargi gaua ibai zabalean  
zein atsegiña izaten dan.  
Paketsu garbi gau erdian  
ta lepo zaillua aldamenean.

## **Espetxean.**

Ni nago espetxe batean itun.  
Ez det arkitzen pakea iñun.  
Nun dago neretzat askatasuna  
Ta nere biotzan maite kutuna?.

Nai det ikusi nik egunsentia  
Berakin datorren argi berria  
Zabaldu espetxea zabalduteak  
Ta aska betiko nere kateak.

## **Larrosa gorria.**

Usai gozoaz beterik  
loreak loretegian  
Margo biziez jantzirik  
dagozte udaberrian.

Larrosa gorri gorri bat  
ederrena da neretzat.  
Uraxe aukeratu det  
nik nere maitiarentzat.

Orra or maite neria  
larrosa berdin gabea.  
Berakin eskeintzen dizut  
nere maitasun guztia.

## **Lo egin aurtxoa.**

Lo egizu ene laztana.  
lo egizu aurtxoa.  
Illargi txuri eta ixillak  
emango dizu muxua.

Lo egizu aingerutxo  
amaren biotzekoa.  
Ez dakizu atsekabez  
nola jakin maitea.!